



Hitzaurre gisa

Josune Zabala Alberdi

Soziolinguistika Klusterra

j.zabala@soziolinguistika.eus

Gizarteak gero eta trebezia handiagoa eskatzen digu ahozko adierazpenaren arloan. Gaurko gizartean beharrezkoa da “ondo hitz egitea”. Garrantzitsua da jendaurreko hitzaldiak egitea, debate batean parte hartzea, disertatzea, akordioetara iristea. Herrialde baten demokraziarako garrantzitsua da herritarrak ahozkoan ondo moldatzea eta prestatzea (Ozaeta, 2007). Pentsamendu eta behar horretatik, gero eta jende gehiago ari da ondo komunikatzen ikasten. “Azkenean, komunikatzea baita lan taldean ondo lan egiten jakitea, lidergoa eramaten jakitea, emozionalki inteligentea izatea, komunikatzea da gatazkak ondo kudeatzea, jendaurrean ondo hitz egitea...” (Marañon, 2012).

Horra, hizkuntza eta gizartea harremanetan jartzen dituen bi ideia bateragarri. Gaur egungo gizarteak dituen behar komunikatiboek dihardute. Soziolinguistikaren talaiatik ideiak osatu genitzake ikusmira zorrotzuta: gizartea, herritarrak edo jendea “hizkuntza komunitate” terminotan ulertuz (Fishman, 1972), hots, barietate jakin bat erabiltzeko arauak dituen kolektibo gisa. Euskararen errealitatearen begiratokitik, gainera, hizkuntza gutxitu bateko hizkuntza komunitate “elebidun edo eleaniztun honen behar komunikatiboek” aritzea aberasgarriagoa gertatuko litzaiguke. Eta are gehiago, euskal ikerkuntza soziolinguistikotik “normalizazio”

bidean jarri nahi den erabileraz eta interbentzioaz jardutea. Jakin badakigu hizkuntza bat garatuko bada, funtsezkoa dela gutxienez hizkuntza hori *hitz egitea* eta *transmititzea* (*transmittere*: trasladar, transferir... gune/une batetik bestera “eraman”). Ahozko hizkuntza gure agertokiaren erdigunera eramatea esan nahi luke horrek, baina badakigu, halaber, agertokia begitantzeko erak ere ezberdinak izan daitezkeela. Zenbat ate, hainbat maratila.

SLK-ren hausnarketa estrategikoa egin (2012-2015) eta bere lan-ildoak zehaztu zirenean (2013) ekin zitzaion ahozkotatasuna soziolinguistikan eta bere lan-ildoetan kokatu eta ikusteko bideari, eta hala, ahozkotatasuna eta bere ikerketaren barrutia zein izango den argitze lanetan emandako urratsetako bat izan da EHUko 2015eko uda ikastaroetan gauzatutako jardunaldia.

Irakaskuntza eremuan, zenbaterainoko garrantzia ematen zaio ahozko hizkuntzari? Zer ulertzen dugu dela ahozkotatasuna? Noraino iritsi gara ikerketa eta praktika sozialei dagokionean? Zer berri dakigu lehendik ez genekienetik? Zer aldatu da gure egiteko moduetan? Zertan sakondu beharko genuke ikerketa arloan? Zertan gure praktiketan? Zeri eman, batez ere, garrantzia datozen hamar urteetan?

“Ahozko komunikazio eskolan: azken hamarkadako ikerketa eta esperientzia berriak” izenburupean egin zuen bakoitzak bere ekarpena. Guztien artean esanguratsuenak aipatu beharko banituzke bi ideia dira izarretan izarrak: lehena, hizkuntza irakaslearena bakarrik ez, baizik eskolarena dela gai honen ardura; eta kate beraren segida, eskolarena bakarrik ez, baizik eskolarekin harremanetan diren subjektu guztiena ere badela ardura. “Herrietako euskara teknikariek ere beharriantzat hartu beharko lukete ahozkotasuna, gai honi irakasleek bakarrik heldu ez diezaien”, Kike Amonarrizek esandakoa gure egiten dugu.

Badakigu ahozkotasanak aukera handiak ematen dituela hizkuntza garapenari ez ezik, hizkuntza normalizazioari lotutako ekarpenak egiteko. Ahozkotasuna ere erabilerari lotuta dago, beraz, baita erabileran i(ra)katsi eta erabiltzeko i(ra)kasteari ere. Ahozkotasuna da eskolako eta eskolaz kanpoko testuingururutako zerbait. Erabileran eta erabiltzeko irakasteak esan nahi du i(ra)kasteko moduetan ere iraultza txikiak egitea. Eta abar, eta abar. Horren guztiaren jakitun izanda ere, tamalez eta oraindik oso leku txikia dauka ahozkotasanak nola hezkuntzan, hala hizkuntza plangintzetan. Baztertu antzean daukagun esparru horretan, halere, ari gara lanean, eta aritze horretatik jasotako esperientzia batzuk plazaratzeko eskatu genien jardunaldian parte hartu zuten adituei. Ordukoak idatziz bildu ditugu BAT 96 alean.

“Ahozko euskara, ikerketarako unibertso bat” aurkeztu digu **Ines M. Garcia-Azkoaga** EHUko irakasleak. Ahozko hizkuntza objektu moduan definitzeko dagoen konplexutasuna zein den aurkezturik, eskolari lotuta irakaskuntzaren objektu zein bitarteko moduan eman diezaiokegun tratamenduaz ari da. Etorkizunera begira unibertsitatearen eta eskolaren elkar-

lanaren eskutik ikusten diren zenbait erronka ere azpimarratzen dira, hala nola, ahozko irakaskuntza formalerako eta ez formalerako sekuentzia didaktikoak sortzea eta esperimentatzea, ahozko testu-generoen azterketan sakontzea, edo, eskola hizkuntzaren normalizazioaren eragile den neurrian, haren barruko ahozko euskaren erabilerari behatzea.

HUHEZIKO Miker taldeko **Karmele Perez, Agurtzane Azpeitia** eta **Idurre Alonso** ikerlari eta irakasleek ekarpena egin dute irakasleen formazioari lotuta. Prestakuntza eraldatzaile eta berritzailea proposatzen da, irakasleen profesionalizazio-prozesuan eragingo duena. “Unibertsitatea eta eskola elkarrekin ahozko hizkuntzaren didaktika lantzen: egunkariaren erabilerari etengabeko prestakuntzan” artikuluan laburtzen da eskolara hitzaldi bidezko formazioa ematera joan beharrean, nola iker-tzaile-irakasle arteko harremanetan sostengatzen den ikerketa-formazioa bideratzen duten. Irakasleen egunkarietatik abiatzen da formazioa. Egunkarietan ateratako datuak bihurtzen dira formazioaren galdera-gai, baita estrategia berriak diseinatzeke aukera ere.

Josune Zabalak, berriz, Soziolinguistika Klusterrak azken lau urte hauetan Tolosan egindako ikerketaren berri eman du. “Tolosa: ahozko laborategia. Lau urteko esperientzia DBHko ikasgeletan” artikuluan ematen dira, bereziki, ikerketa honetatik ateratako emaitza nagusiak Bigarren Hezkuntzako ikasleen ahozko hizkuntza (H1 edo H2 euskara) hobetzeko eta horretan laguntzen duten metodologia didaktikoei begira. Ahozko hizkuntza eskolan arrakastatsuki sustatzeko elkarreraginean dabiltzan bost dimentsio aurkeztzen dira, eta horien zer-nolakoa azaltzen da banaka-banaka: ikasleak; testuinguru soziolinguistikoa; ikas-tetxeko curriculum, testu-liburuak eta praktika pedagogikoak; irakaslearen esku hartzea; eta baliabideak.

Nafarroan bide berdin eta arrakastatsuan dihardute landa-lanean **Esther Muguertza** (Euskara Atala) eta **Yolanda Olasagarre** (Euskararen Irakaskuntzarako Baliabide Zentroa) normalizazio teknikari eta formatzaileek. “Motibazioari laguntzen dio ahozko hizkuntzaren lanketak, eta alderantziz, ahozko gaitasuna lantzeak motibazioari; horregatik, eta hizkuntza normalizazioarekin lotuta, ikastetxean egiten denak zentzua behar du herrian bizi dutenarekin eta ikasleen azken ekoizpenak horretarakoxe irudikatzen ditugu” dio Muguertzak. Euskararekiko motibazioa eta ahozkotasuna ondoz ondo irudikatuta, bi alorrak lantzeko diseinatuta dituzten programa eta ikastaroen berri ematen dute “Euskara bultzatzeko esperientziak Nafarroako Irakaskuntzan: motibazioa eta ahozkoa” artikuluan.

“Ikasleari komunikatzeko behar dituen tresnak ematea dagokigu. Arlo ezberdinetatik, gainera” elkarrizketa da **Mikele Aldasoren** ekarpena. Ikastolen Elkarteko kide den Mikelek argi du ikuspegi teorikoa eta gelako praktika elkarreraginean ulertuz egingo dela aurrera hezkuntza ereduaren eraikuntzan. Hizkuntza irakastetik harago, komunikatzen irakastea dagokigula dio, eta ikasleek eskuratu behar dituzten oinarrizko konpetentzien osagaia dela ahozko komunikaziorako konpetentzia. Ildo horretatik, ahozko hizkuntzaren zer, zertarako eta nola irakatsi eta ikastea dagokion galdetzea litzateke oinarrizko galdera. Bide horretan, “Komunikatzen ikasi” konpetentzia EKI egitasmoaren bitartez nola lantzen den kontatzen digu elkarrizketan.

Ahozkotasunaren gaia soziolinguistikaren ikuspegitik begiratuta jorrazteko eskatuta landu du Kike Amonarriz soziolinguistak “Ahozkotasuna soziolinguistikaren behato-

kitik” artikulua. Euskal soziolinguistikaren hastapenetan ez zuen ahozkotasunak zentraltasunik hartu, lehenetasunak beste esparru batzuetan zeudelako. Hiztunak ugaldtu eta hizkuntza normalizazio prozesuak aurrera egin ahala, ordea, gero eta interes handiagoa azaldu da ahozkotasunaren inguruan. Izan ere, gero eta ikasle elebidun gehiago ditugu, gero eta hizkuntza errealitate anitzago baten aurrean gaude, eta aniztasun hori gure aldeko bihur liteke. Ahozkotasunaren lanketak euskararen erabileran duen garrantzia nabarmendu eta lan-ildo zehatzak proposatzen ditu.

Hara hementxe, ahozko hizkuntzaren gaineko ikerketa eta esperientzia emankorren bilduma txikia. Ekinean jarraitzeko bultzadaxo batzuk. Hezkuntza esparrurako aukera ederrak eta hizkuntza normalizazioan diharduenarentzako argi keinukari bat.

Amaitzeko, esan dezagun BAT 96 zenbaki honetan beste bi artikulua ere eskaini diegula gure irakurleei. GUREAN atalean 2015eko IkerGazte kongresuan izandako mahai-inguru interesgarri baten gaineko artikulua aurki daiteke, lehenik. Testua idazketa koralean egina da, eta ezaugarri horrek ematen dio berezitasuna lanari. Izan ere, **Naiara Berasategik**, **Jone Goirigolzarrik**, **Ibon Manterolak**, **Gorka Salces**-ek eta **Xabier Landabideak** osatu duten boskoteak asmatu du ikuspegi interesgarri bezain sendoa ematen euskararen hitzun berrien inguruan azken urteotan garatu diren hainbat eta hainbat ideiar.

Atal honetako bigarren artikulua **Maria-Jose Azurmendik** eskaini digu. Aurten zendu diren nazioarteko bi soziolinguista handiei eginitako esker oneko hitzak baliatu nahi dituguk ere haien lan handiari merezimenduzko aitortza egiteko. •